

Diskriminaziorik EZ! Bosturtekoak Guztiontzat!

Sindikatu guztiok - **LAB, STEILAS, CCOO, ELA** eta **UGT** - argi dugu IIP ez-iraunkorraren eskubidea ere badela bosturtekoak jasotzea. Gainera, argi dugu, UPV/EHUn eskubide hori 2015 urtetik aurrera gauzatu behar dela, ondorio guztiekin. Beraz, 2015eko ohiko deialdian ebaluazio positiboa eskuratu dutenei atzerapenak ordaindu beharko litzaizkieke eta aurkeztu ez zirenentzako ez-ohiko deialdi berri bat prestatu beharko litzateke, ondorio ekonomiko berberekin.

Horregatik, Plataforma Bateratuak UPV/EHUko Irakasle-Ikertzaileen Errektoreordeari gaia aztertzeko **mahai negoziatzailea** deitzea eskatu dio, negoziazioa abiatzeko hurrengo proposamenarekin:

1. UPV/EHUko IIPko kide orok, irakaskuntzan 5 urteko ibilbidea metatu ondoren, urteroko deialdian bere irakaskuntza ebaluatua izateko eskubidea izango du.
2. Bosturtekoen balore ekonomikoak, 41/2008 Dekretuaren 8.4 artikulua diona erreferentzia gisa hartuta, honelakoak izango lirateke:
 - Irakasle osoak: 1.834,32 euro
 - Gainontzeko irakasle eta ikertzaile doktoreak: 1.485,72 euro
 - Irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak: 1.257,24 euro

dagokien eguneraketak kontuan hartuta.

3. Adostutakoa 2016ko deialdian gauzatu da, deialdia irakasle e ikertzaile guztioi irekiaz, eta 2015ekoaren ez-ohiko deialdiaren aukera jasoaz.

Errektore-talde honi dagokio orain zintzo eta argi jokatzeko, bosturtekoen esleipena bermatuz, bere ondorio akademiko eta ekonomiko guztiekin. **Sindikatuok ez dugu etsiko DISKRIMINAZIO HAU ZUZENDU ARTE.**